

KOLEKTIBOA

Web orrialdearen aurkezpena dela eta, Euskal Kazetarien Elkartean nire aurretik izandako lau presidenteei, Antonio Petit Caro, Juan Antonio López Redondo, José Manuel Alonso eta Lucía Martínez Odriozolari, hain zuzen, erakunde honen buru izan zireneko bakoitzaren garaiaren inguruko lerro batzuk idaztea eskatu diegu. Bakoitzak, arrazoi batengatik edo bestearengatik, bere oroimenean grabatuta geratu zaion momenturen bat gogoratu du.

Inplizitua dagoen arren, hiruretako inork ez du bere agintaldiaren elementurik garrantzitsuena aipatzen, hau da, lanbideari zerbitzatzearen nahia, baliagarriak izatea eta beste guztiek bezala, sostengu kolektiboa behar duen ogibidea aldarrikatzea, nahiz eta gureak "indibidualista" ospea duen lanbidea izan.

Egungo Zuzendaritza Batzordeak gure aurreko kargudunen testigua hartu du. Horretarako, gure kideekin eguneroko harremana areagotu dugu sare sozialetan oinarrituz eta lanbidearen inguruko informazioa luzatuz, ez bakarrik gure inguruan, baizik eta nazioarte mailan ere; **Kazetariak** berrargitaratu dugu formatu digitalean eta hambost egunez behin ateratzen da; **Euskal Kazetaritza Sariak** berriz sustatu egin ditugu sari hauek atal berriak barneratuz eguneratu direlarik; osasuna, hezkuntza, turismoa, eta kulturaren inguruko hainbat enpresekin tratuan ibili gara gure kideei zuzendutako zerbitzuak hobetzeko; Euskadiko erredazkiekin eta komunikabideen zuzendariekin harremana areagotu dugu; beste esparru profesional eta instituzionalekin ere lan egin dugu; lan eskaintzak zabaldu ditugu, gutxi, zoritxarrez; gai desberdinen inguruko gero eta tailer, mintzaldi eta berbaldi gehiago burutzen ditugu, kazetaritzaren ikuspuntutik beti ere; Manu Leguineche omentzen dugu; egunero zendutako kideak oroitzen ditugu eta amaitzeko, gure kideei, kolektibo osoari, pixkatxo bat baliagarriak izateko lan egiten dugu egunero.

Web hau lan horretan beste pausu bat da. Eskerrik asko aurreko presidente eta Zuzendaritza Batzordeei egindako ekarpenengatik. Hauen adibide, ilusio, grina eta ezagutzari esker hemen gaude. Eskerrik asko Elkarteko kide guztiei egiten dugun ekintza guztietan konfidantza eta ineteresa erakusteagatik. Web orrialde hau, eskaintzen ditugun beste zerbitzuak bezala, zuen esku dago.

Txuskan Coterón

Lehendakaria 2014-2018